



## Oinarrizko Ekintzak

### 1. pausua:

Aurretik aipatutako bezero kanalen bitartez datorkigu bezeroa.

### 2. pausua:

Bezeroaren beharren arabera diseinatutako produktua personalizatua edo estandarra izango da.

Lehenik eta behin, bezeroarekin aurrez aurreko harremana izango genuke, eta honek bere beharrak azalduko lizkiguke. Bezeroak behin erabakia hartuta bi egoera eman daitezke:

- Produktu estandarra: Produktu estandar bezela **3 modulo** unitario ezberdin eskeiniko ditugu. Bezeroak iada stockean dugun moduluaren aukeraketa egingo du eta honen salmenta burutuko da, ondorengo entrega zuzenarekin. Entrega aurretik **simulazioa** eta kalitate froga batzuk burutuko dira, eta entrega burutuko da. Entregarako garraio enpresarekin dugun aliantza erabiliko da.
- Diseinu pertsonalizatua: Bezeroarekin elkarrizketan jasotako informazioarekin diseinua prestatzen da. Behin diseinuaren lehen zirriborroa egin eta aurrekontua erakutsita, bezeroarekin hitz egiten da berriz. Ondobidean, **%10-ko** aurrerakin bat eskatzen da seguru modura.

### 3. pausua:

- Behin diseinua burutu dela, honen produkzioarekin hasten da. Horretarako biltegia fabrikatzeko materialak eskatu, eta hauekin lanean hasten da **biltegiaren eraikuntzan**. Biltegi hau egiten bi lankide egongo gara.
- Eraikuntza burutzen den bitartean, **elektronika** enpresarekin harremanetan jarri eta beharrezko materiala zein konponenteak eskatzen dira, eta instalazioa eta muntaia pentsatzen hasten da.
- Aldi berean, bezeroak **programa informatikoari** dagozkion eskakizunak azaltzen zaizkio informatika enpresari, honek beharrezko aldaketak eta gehikuntzak burutu ditzan.
- Iada biltegia burututa dagoela, sistema elektronikoa zein informatikoa txertatzen dira enpresa hauen laguntzaz.
- Behin produkzio maila batzuk lortuta eta enpresak berak hau burutzeko formakuntza nahikoa duenean, alor hau enpresaren baitan geldituko da eta aipatutako bi aliantza horiek bigarren plano batera pasako dira, laguntza gisa, zerbitzu gisa baino.



4. pausua:  
Behin biltegia osatua dagoenean, froga batzuk egingo dira biltegiaren sistema informatikoak ondo funtzionatzen duela eta eskatutako funtzio guztiak eskeintzen dituela ziurtatzeko. Bezeroari deituko zaio honek ere ikusi dezan sistemaren funtzionamendua eta simula dezan.
5. pausua: Produktua enbalatu eta garraio enpresarekin hitz eginda bezeroari eramaten zaio.
6. pausua: Garantia eta mantenua
  - a. Garantia:  
Garantian sistema pneumatikoa eta sistema informatikoak eduki ditzakeen arazoak bere gain hartzen ditu. Golpeak ez daude barne.
  - b. Mantenua:  
Biltegiak izan ditzazken matxuren konponketa. Matxura mekaniko, elektronikoa zein informatikoa izan daitezke. Urteko kontratua ezarriko litzake, asistentzia kopuru bat eskainiaz.
7. pausua:  
Behin prozesu guztia bukatzean eta bezeroa produktu erabiltzen ari denean, asebetetze inkesta bat betetzeko eskatuko zaie, prozesuan zein produktuan zerbait hobetuko luketen jakiteko eta orokorrean hauen asebetetzea neurtzeko.

Behin produktu estandarra burututa, produktu pertsonalizatua osatzen joan daiteke moduluak konbinatuaz. Etorkizun batean aldaketa edo moldaketaren bat beharrezkoa balitz, hau moduluak gehituaz/kenduaz/konbinatuaz egin daiteke.

**Produktu Estandarra    Produktu Pertsonalizatua**

